

## **1. eguna inkomunikatua:**

### **Atxiloketa:**

Nire neskalguna eta biok ohean geunden. 2:00-2:30 tarte horretan etxeko goiko atean kolpeak eta oihuak entzun genituen. Atea irekitzera justu heldu ginen. Guardia Zibileko agente batek atea behera botatzeko tramankulu batekin prest zegoen. Beste bi agentek aterantz metralletekin zeuden eta atzean jende pilo bat. Atea ireki genuenean oihuka nire izenagatik galdetu zuten. Ni nintzela esan eta paretaren aurka jarri ninduten eta segituan sekretario judizialtzat aurkeztu zuen bere burua gizon batek. Sukaldera eraman gintuzten eta agindua erakutsi zidan. Eskuak atzeko partean esposatu eta etxearen miaketari ekin zioten. Tratua etxean ez zen baldarra izan. Komunera bitan joaten utzi zidaten (esteetako arazoak baitituz). Etxea gelaz gela miatu zuten ni aurrean egoteko aukera emanaz. Ez dakit kalkulatzan zenbat denbora emango zuten baina ez zitzaidan motza egin. Gutunak, dossier publiko batzuk, sukaldeko paperontzian sindura bilketa baten orri bat, nire bidelagunaren mugikorra, nire mugikorra, mugikor zahar bat, gure bi argazki makinak, nire ordenagailu pertsonala, eta halako beste gauza batzuk eraman zituzten. Komunikatu ere hartz eskuila.

Etxetik ateratzerakoan nagusia zena (denek zuten burua estalita GAREkoak ezik) ez zuela kalean inolako tontakeriarik nahi esan zidan. Ez oihurik, ez saltorik, ez deus. Nik nire neskalgunaz agurtzeko aukera eskatu nion eta baimendu zidan. Ondoren kalera jaitsi eta patrolean sartu ninduten. Eskuburdinak atzean eramatearen ondorioz eserlekuarekin min egiten nuen baina ez nintzen kexatu.

Etxean geundela Garrazta Elkarteko giltza nuen galdetu zidaten eta nire ezezkoaren aurrean erantzun borobila jaso nuen: “sartu behar gara, giltza baduzu lasaitasunez eta deus hautsi gabe, ez baduzu, behera botako dugu atea”. Eta horrela sortu zezaketen kaltea ekiditeko nire giltza eman nien.

Honen ondorioz banekien etxetik elkartera gindoazela. Laino handia zegoen eta etxetik jaistean ez zegoen inor kalean, soilik hiru telebista kamara.

Garraztara heldu ginen eta sartzen lehenak GAREko agenteak izan ziren. Gainontzekoak sartu aurretik begirada bat bota zioten elkarte osoari eta atera ziren “limpio” esanez, baina bazegoela gela bat atea giltzaz itxita. Nik esan nien bodega zela eta presidenteari deituta berak irekiko zuela. Gainera presidentea nire aita zela. Baina ez zidaten kasu egin eta atea bota zuten. Ondoren denak sartu ginen eta modu oso antolatuan eremuz eremu miatzen joan ziren. Lehenengo bodega, gero bulego deitzen zaiona, sukaldea, pasilloa eta ondoren elkaratearen aretoa edo jatetxea. Pankartak, presoen aldeko orriak, Gernikako akordioaren esku orriak, greba orokorraren esku orriak, ordenagailu bat, udal taldearen armairutik karpeta eta dokumentuak, kartel batzuk,... eraman zituzten. Bulegoko atea ezik ez nuen ikusi beste ezer apurtuta eta nirekiko tratua egokia izan zen

ere. Ulertu nienaren arabera 8:00-8:30tan bukatu zen. Atera ginenean oso azkar sartu ninduten patrolean herriko jendea bai zegoen bilduta. Ondoren GAREko agenteak komentario batzuk egin zituzten jendea mesprezatuz. Baina tratua egokia izaten jarraitu zuen.

Elkartetik auzitegira eramán ninduten. Tratua egokia zela ikusita lasaitu nintzen. Eskuburdinak kendu zizkidaten eta fitxaketa egin zidaten. Hatz markak, argazkiak, DNA froga... Gero auzi medikuak ikusi ninduen. Honi tratua egokia izaten ari zela esan nion, baita asma dudaren berri eman. Ondoren berriro garajera eramán ninduten. GAREko agenteek eskuburdinen ordeztu oihalezko brida moduko batzuk jarri zizkidaten, eskuburdinak baino askoz erosoagoak. Garajeán kotxe txiki batetik zeuden lau gizonak jaitsi ziren, burua “pasamontañas”arekin estalita zuten. Gerturatu ziren eta nire izen propioaz deitu ninduten. Zer moduz zaude? Orain gurekin etorriko zara. Eskuburdinak jartzen saiatu ziren atzeko partean jarrita nituen bridak apurtu ostean. Baina saiakera batzuen ondoren ez zuten lortu eta azkenean aurrean lotu zizkidaten eskuak. Kotxera igo ginen. Ni atzeko partean beste biren artean. Ahotsengatik bi hauek izango ziren nire galdeketen protagonistak. Kotxea abiatu zenean besteak (“Trancas”) esan zidan: “Ahora ya sabes lo que viene”. Eta orduan berriz urduritu nintzen eta ikaratu etxera sartu zirenean bezala. “Akabo!” pentsatu nuen. Fitxatu ninduten gelatxoan Gorka Mayoren fitxa ikusi nuen eta ondorioz bera ere atxilotua zegoela jakin nuen.

### **Madrilerako bidaia:**

Bidaia oso luzea izan zen. Burua belaunen artean eramanda eta kotxera igotzean jarri zidaten antifaza eramanda. Gainera bero handia pasa nuen. Izerdi patsetan eman nituen tarte handiak. Beraiek ere, behin baino gehiagotan kexatu eta leihotxoak jaitsi zituzten. Geldialdi bat ere egin genuen eta ura edo zer edo zer nahi nuen galdetu zidaten. Nik ezetz esan nuen. Tratuari dagokionez nahiko egokia izan zen. Gutxienez atzean nire alboetan zihoazen bietako baten partetik (“Pepe”), nire ezkerrean zegoena.

Bidaia hasi bezain pronto polizia ona eta txarraren funtzioak banatuak zituztela argi gelditu zen. Nire ezkerretara zegoena tratua egokia baino, paternalista izan zuen. Galdera gehienak berak egiten zizkidan eta nire eskuman zegoena jotzen ninduenean, edo oihukatu, jarrera hori ez izateko esaten zion. Eskuinekoa aldiz, bortizki hitz egiten zidan eta mehatxuak egin.

Galderak egiten hasi ziren: “¿Te sorprende que te hallamos detenido?, ¿Pero no crees que quien la hace la tiene que pagar? ¿tú eres muy conocido en Zizur, no? Si te hemos criado, te llevamos siguiendo toda la vida, ¿acaso no has puesto tú casi todas las pancartas del puente de Zizur?...”. Esku burdinak markak ez eragiteko ahaleginak ere egiten zituzten. Eskumuturreko zonalde argalenean kokatuz presiorik eragin ez izateko. Giroa lasaia zen. Baina bat batean galderen zentzua aldatu egin zen. Nire eguneroko jardueraren inguruan hasi ziren. Eta pertsona zehatz batzuetaz galdetzen. Orduan isiltzeko ordua zela ohartu nintzen eta utzi nion hitz gutxiak esateari.

Honek nire eskuinean nuenaren haserrea piztu zuen eta mehatxuka hasi zen. Eta nire isiltasunaren aurrean beso azpian saihetsen altueran eta buruan kolpeak eman zizkidan. Eta kolpe eta mehatxu bakoitzaren ondoren nire ezkerreko eta aurreko eserlekuan zeudenak jarrera hori ez hartzeko eskatzen zioten. Komisariara heldu arte isilik egon nintzen.

### **Komisaldegian:**

Komisariara heltzean nire eskuinekoa (Trancas) “se te ha acabado el tiempo de hacerte el duro” esan zidan. Kotxetik jaitsi, eraikin batean sartu, pasillo batetik igaro eta eskailera batzuk jaitsi genituen. Eskailerak bukatzean gelditu eta Trancasek esan zidan: “Bienvenido al infierno”. Hau entzuten zirrara bat eta beldurra goraka zihoala sentitu nuen. Burua jaisteko eta gorputza tolesteko esan zidan eta nire ziega izango zenera eraman ninduten. “Te ha tocado la suite”. Sartzean esan zidaten: “Cuando te llamen te levantas y te pones contra la pared”. Eta paretaren kontra nengoela antifaza kendu eta Trancasek esan zidan: “Dentro de un rato vendré y se acabará lo de ir de duro”. Atea itxi zidaten. Gela iluna zen eta koltxoi bat zuen. Jatekoa segidan eman ziguten. Horregatik bazkal ordua izango zela pentsatu nuen. Ez nuen deus jan ezta edan. Hor gelditu zen bokata.

Ziega ilun eta hotz horretan denbora luze eman nuen. Denbora horren bitartean pausuak, atea eta ahots oso baxuak entzun nituen. Beldurra, hotzaren pareko, gorputzean sartua nuen. Zer etorriko zen etengabe galdetzen nion neure buruari.. Bat batean nire atearen burni soinu gogorrak entzun ziren, “Levántate y contra la pared”. Eta nik hori egin nuen. Antifaza jarri zidaten, burua makurtzeko esan eta atera ninduten. Nik pentsatu nuen orain hasiko zela benetan gogorra. Pasillo batzuetatik igaro ondoren eskailerak igo genituen. Baina azken eskaileretan geldiarazi, antifaza kendu eta aurpegia estali gabe zeraman gizon heldu bat pasillo batetik eraman ninduten auzi medikuarengana. Medikua 19:00ak aldera zirela esan zidan. Egunero goiz eta arratsalde pasako zela esan zidan eta nola nengoen eta zein izan zen jasandako tratua galdetu zidan. Beldurtuta nengoela esan nion eta tratuari zegokionean ez zela txarra izan esan nion. Ez nintzen berarekin fidatzen. Ondoren kontrako ibilbidea eginez eskailerak behera eta makurtuta berriro ziegara. Tarte horretan ni bezalako kide gehiago zeudela ohartu nintzen soinuengatik.

Hurrengoetan, eskailerak igotzen bagenituen auzi medikura nindoala nekien, igotzen ez bagenituen... galdeketak. Auzi medikuarekin goizean 11ak aldera zirela eta arratsaldean 19:00ak aldera zirela nekien.

Lehen egun horretan auzi medikuarekin egon eta gero, ratu bat beranduago hasi ziren berriz ateen soinuak. Nirea entzun nuenean berriz pentsatu nuen “Orain bai”, eta konfirmatu zen. Paretaren kontra jarri nintzelarik gizon bat sartu zen, antifaza jarri eta segituan Trancasen ahotsak esan zidan “Vamos Jorge, es la hora”. Deus gehiago esan gabe makurtuta eskailerak igo gabe, pasillo batetik eraman ninduten. Gela baten moduko batean sartu ninduten eta tente jartzeko esan, “Qué tal estas?” galdetu zidaten. Hor jokoan hasi ziren Trancas eta “Barrancas” edo bere buruari

esaten zion bezala “Pepe”. Jende gehiago zegoen bertan ze izen horiekin deitzen zieten. Baina nirekin bi horiek soilik aritu ziren. Lehen galdera “Eres de alguna organización?” izan zen. Ez nuen deus erantzun. “No seas tonto y no te compliques” eta buruaren atzeko partean kolpe bat eman zidaten. Berrito lehen galdera, eta nire isiltasunaren ondorioz kolpeak hasi ziren. Buruan alboetan eta atzeko partean, sabelean eta saihetsetan. Ni isilik mantendu nintzen. Mina eragiten bazidaten ere aguantatzen nituen kolpeak. Oihuka hasi ziren, galderak egiten eta beraiek dena zekitela esaten. Hormaren kontra bultzatu ninduten eta pladurrezkoa edo zurezkoa zela iruditu zitzaidan. Ni isilik jarraitzen nuen. Gero iskina baten kontra jarrita “sentadillak” egiteko agindu zidaten. Eta hasi nintzen. Betidanik nire gorputzaren atal ahulena hankak izan dira eta segituan ariketa hauek egiteko ezintasuna sartu zitzaidan. “No te pares, ¿te he dicho que te pares?” eta kolpeak berrito. Erortzear nengoela zutitu ninduten eta lasai une bat eman zidaten. “Aquí todos cantan, lo único que puedes hacer es alargar esto o hacerlo más llevadero”. Eta denbora gutxira berrito galderak. “Tenemos muchos seguimientos tuyos, así que ya sabemos dónde andas, ¿a qué organización perteneces?”. Eta orduan izan zen benetako sufrimendua hasi zenean. “A ninguna” esan nuen. Eta segituan buruan plastiko poltsa bat jarri zidaten atzetik itxiz eta tiratuz. Ez dakit deskribatzen zer izan zen hori. Momentu horretan arnas ezin nuela hartu uste nuen. Momentuan itotzen nintzela. Denbora txiki bat aguantatu nuen hala ere. Baina itotzearen sentsazioa oso azkar egin zuen gora. Segituan poltsa apurtu nuen hortzekin. Nire atentzio osoa arnasa hartzean jarri nuen, beste poltsa bat jarri eta nik apurtu. Beste poltsa eta norbaitek burua atzeraka tiraka eta ahoan eskua jarri zuen. Nire onetik aterata nengoen, oldartu nintzen saltoka eta gainean nituenak bultzatzen eta berrito poltsa apurtu, baina oraingoan eskuekin. Hala ratu bat eman genuen. “Te vamos a poner los grilletes” esaten zidaten. Baina hilko nintzela uste nuen, itotzen nintzen. Eta ezin nuen arnastu. Azkenean poltsa lodiago bat jarri zidaten baina berrito eskuekin hartzen lortu nuen. Lurrera bota ninduten, bat nire ipurdiaren gainean eseri eta besoak hartu zizkidan eta beste batek edo batzuk hankak. Eta beste bat poltsa jarri zidan. Hor amaiera sentitu nuen. Ezin dut momentu hori deskribatu. Momentu batean arnasa hartzen saiatzen nengoela mareoa sentitu nuen eta hortik segituan poltsa kendu zidaten. Zutitu eta hitz egingo nuen galdetu zidaten. Nik “esperar, que no puedo respirar” esan nien baina “estas ganando tiempo” esanez beste poltsa jarri zidaten eta estutu. “Si vas a hablar levantas el brazo”. Baina poltsarekin buruan ez nuen inola erresistitzeko indarrik. Adorea galdu nuen. Etsi nuen. Horrela jarraitzekotan hilko nintzela sentitu nuen. Itota hila. Eta besoa luzatu nuen. Poltsa ez zidaten kendu baina estutzeari utzi zioten. “¿Seguro que vas a hablar? como nos engañes ya sabes” eta Trancasen ahotsa “Yo no te creo, creo que necesitas todavía más”. Azkenean poltsa kendu zidaten eta arnasketa lasaitzen zitzaidan bitartean “Pepe” hitz egiten hasi zitzaidan, “Lo mejor que puedes hacer es pensar en tí, teneis un esquema en la cabeza equivocado, tienes que mirar por tí”. Orduan kolpeen minez ez nintzen kontziente, soilik itotzearen sentsazioa zen dardarka ninduena. Ez

dakit zenbat alditan jarri zidaten poltsa. Baina etsi nuen. Defentsa guztiak erori zitzaizkidan. Eta galderak etorri ziren berriz. “De qué organización eres? ¿cual es tu función?¿cómo y quien te reparte la propaganda?”,... ez ziren galdera asko izan. Lehertuta nengoen, oso nekatuta, zutik mantentzeko zailtasunarekin. Eta dardarka. Dar-dar hori oso ondo gogoratzen dut. Hankak eta besoak ziren gehien dar-dar egiten zidatenak. Bihotzeko taupadak oso azkar zihoazen azkarra eta sakona nuen. Ziegara eraman ninduten berriro. Baina oraingoan beste ziega batean sartu ninduten. Txikiagoa zen. Paretaren kontra jarri, antifaza kendu eta atea itxi zuten. Gogoratzen ditudan azken hitzak izan ziren “ahora si nos vamos a llevar bien”. Ohean etzan nintzen, ume bat izango banintz bezala bolatxo bat eginda, ikaratuta, etsituta, dardarka.

Ziegan nengoela beste ateen soinuak entzuten nituen jendea sartu eta ateratzen. Urrunean oihuak ere entzuten ziren. Batzuetan galdeketak egiten zituztenenak ziruditen eta besteetan mina sufritzen ari zen norbaitenak. Iluntasunean, dardarka oihu guzti horiek mina eragiten zidaten, bihotzean eta sabelean pintxazoak balira. Gero afaria ekarri ziguten edo heldu nintzenerako bertan zegoen. Ez dut ondo gogoratzen. Baina ez nuen ez jan ezta edan ere. Ezin nintzen ere lokartu. Logura eza nuen, oso nekatuta sentitzen nintzen arren. Ateen beste aldean gertatzen zen guztiaren beldur nintzen. Orduan sentitu nituen kolpeak.

Rato batera, ezin dut orduetan zehaztu, atearen beste aldean entzuten ziren pausuak nire atearen aurrean gelditu eta irekitzeko soinua egin zuen, KRIS-KRAS... Antifaza jarri eta berriro eskailerak igo gabe galdeketara. Zutik iskinaren kontra galderak hasi ziren. Berriz gogoratu zidaten nahi zutena erantzuten ez banuen bide okerretik egingo zutela. Mehatxuak eta tonu txarrak etengabeak izan ziren. “Pepe”k galderak egiten zizkidaten eta Trancasek erantzuten motela banintzen edo erantzuten ez banuen oldartzen eta mehatxatzen ninduen zen. Poltsa bitan egin zidaten. Bata nire kaptazioa Batasunan nork egin zidan esan nezan eta bestea jasotzen nuen dirua zeinek ordaintzen zidan aitortzeko. Bietan garaitu ninduten, ahal nuena aguantatu arren ez nuen poltsarik apurtu ez oldartu eta nahi zutena errepikatu nuen. Bazegoen gizon bat fondotik entzuten nuena edozein izen edo mote bat aipatzean izen eta bi abizenak esaten zituen. Buruan kolpe batzuk ere eman zizkidaten erantzuna gehiegi gustatzen ez bazitzaien. Eta poltsa erabiltzeko mehatxua etengabea izan zen. Galdeketa hau Batasunaren inguruan izan zen. Nahi zuten informazioa Batasunaren ingurukoa zen. Luzea egin zitzaidan baina ez dakit hala izan zen edo ez. Eta berriro eraman ninduten ziegara. Hala ere kurioa zen nola egin nuen gehiena beraiek esaten zizkidaten izen eta funtzio askoren konfirmazioa. “Y quién más esta ahí? Si ya lo sabemos. Ese es más veterano que tú...” eta horrelakoak. Izenen lehen hizkiak esaten zizkidaten edo baiezkoa edo ezezkoa eskatzen zuten galderei erantzutean.

Ziegan berriro, galdetegiaren ondoren, gorputzaren beste minak sentitzen hasi nintzen... Galdeketa emandako kolpeenak, buruko mina eta saihestenak. Eta “sentadillen” ondorioz

hanketako mina ere, gehienbat belaunen gaineko zonaldean. Ohean etzanda, ezin lo egin, minduta, ikaratuta. Atearen beste aldean entzuten zen edozein soinuren aurrean beste bat bilatzeko izan zedila desiratzen nuen.

## **2. eguna inkomunikatua:**

Auzi medikutik pasatu arte ez ninduten ziegatik atera. Hala ere atearen beste aldeko soinuek tentsioa areagotzen zidaten, beldurra ez zen jaitsi. Auzi medikuarengana eraman ninduten 11:00ak aldera (medikuaren arabera). Aurreko egunean baino okerrago ikusten ninduela esan zidan. Baita aurpegira begiratu natzaion: “Aquí y a mí me puedes mirar sin miedo. ¿te han hecho algo? ¿te han pegado?” galdetu zidan, baina ez nintzen fido. Ezetz erantzun nion eta esplorazioa egiteko insistitu zidan arren ezetza eman nion. Berriro ziegara.

Hortik ratu batera niregana etorri ziren. Berriz zutik paretaren kontra galderak hasi ziren. Oraingoan galderak ezker abertzalearen arteko harremanen inguruan ziren. Poltsarekin mehatxua etengabea zen, behin baino gehiagotan hurbiltzen zidaten eta soinua entzunarazi edo aurpegiaren kontra jarri, plastikoa nabaritu nezan. Behin jarri izan zidaten baina estutu gabe. Ratu bat izan nuen jarrita, estutu gabe. Hala ere ez zuten estutzeko beharrik izan, oso beldurtuta nengoen eta etsita. Gogoratzen ez nintzela esaten banien Trancasek mehatxu egiten zidan, “no te creo, te estas riendo de nosotros, ¿quieres que coja la bolsa? ¿tu eres masoca o qué?”. Gauza batzuei ezezkoa esaten nienean onartzen zizkidaten, “¿lo ves? Si no queremos que mientas, solo queremos la verdad. Si algo no es verdad pues me dices ¡oye Pepe que eso no es verdad! Y no pasa nada, luego me dices la verdad y ya está”. “Pepe” izena hortik dator. Nahi izan zutena lortu zuten; ezagutzen nuena eta ezagutzen ez nuena ere onartu behar izan nuen. Jada marioneta bat nintzen, razionaltasuna erabat galdua.

Arratsaldean auzi medikuaren aurretik pasa baino lehen eraman ninduten. Oraingoan aulki batean esertzeko aukera eman zidaten. Baina iskinaren aurka jarri zuten aulkia eta antifazarekin nengoenez esertzean paretaren kontra jo nuen burua, ikusterik ez bainuen; kezkatu ziren. Marka egina nuen begiratu zidaten. Trancasek ea nahita egin nuen galdetu zidan. Kopetan markarik ez omen nuen, kolpea hala ere ez zen gogorra izan. Baina kezkatu ziren. Ondoren aurreko galdeketan lortu zuten informazioaren errepaso egin zuten ados nengoen galdetuz, nik baietz esanez guztiari. Bukatzean erabaki bat hartzeko unea heldua zela esan zidaten. Deklarazio poliziala egiteko erabakia. Hartuko nuen erabakia ondorioak izango zituela argi utzi zidaten: baiezkoarekin guztia amaituko zela baina ezezkoarekin oraindik denbora asko zegoela aurretik eta beste deklarazio bat prestatzeko soberako tartea izango zutela. Ez nuen pentsatu ere, poltsarekin saio gehiago irudikatze hutsak arnasketa azkartzen zidan. Baietz esan nuen eta berriro ziegara eraman ninduten.

Berriro ziegara. Kalabozoan etzanda, deus jan eta edan gabe, ikaratuta eta atearen beste

aldeko edozein soinu entzuten beste ziegaren batetara joateko nahiarekin.

Atera ninduten hurrengo aldia auzi medikuarengana izan zen. Berriz tratu txarra ukatu eta deus ez esan.

Ondoren, berriz galdeketa gelara, eskailerarik igo gabe. Beraiek deklarazioan eginen zizkidaten galderak egin eta erantzuna izan behar zena azaldu. Nik onartu eta errepikatzen nuen. Galderaren bat ere moldatu zuten erantzutekoa argiegi geratzen ez zelako. Bost aldiz egin nituen galdera-erantzunak. Eta pozik gelditu zirenean ziegara bueltatu ninduten. Trancasek beti bezala gogoratzen zidan ondo egiten ez banuen poltsa hartuko zuela, gustuko zuela. Horretarako entrenatua zegoela eta gogoak zituela. Argazkiak ere erakutsi zizkidaten.

Denbora baten ondoren berriro eraman ninduten. Eta aulkian eserita beste 3 edo 4 aldiz errepasatu genituen galdera eta erantzunak. Bi saio hauetan Trancasena kenduta, gainontzekoen tratua ona izan zen. Hala ere ni ez nengoen lasai. Dena bukatzeko desira nuen. Ihes egiteko beharra. Ez nintzen egiten ari nintzenaren kontziente. Beldurra nuen. Deskribatu ezin daitekeen beldurra. Gero gelatxo hotz batean sartu ninduten, aulki batean eseri eta esan zutenez abokatuari itxaroten egon ginen ratu bat. Bromak eta mehatxuak nahasten zituzten.

Gaueko ordu bata inguru zen (ordu zehatza esan zuten baina ez dut gogoratzen). Nik ez nuen hortik atera eta Trancasen esku egon nahi. Esan zidaten lasai egoteko eta itxura ona ematen saiatzeko. Eta saiatu nintzen. Nire aurrean: galderak egin zizkidan gizon (nire adinekoa edo) betaurrekodun eta lodia eta ordenagailuan zegoen burua estalita zuen beste bat. Atzean omen nire abokatua zena eta gogoratzen ez ditudan beste bi gizon. Galderak egiten zizkidatenak sekulako antzezlanak egin zuen. Galderak momentu horretan asmatzen zituela irudikatuz. Eta ikasia nuen deklarazioa errepikatu nuen eta erakutsi zizkidaten argazkietan esan zidaten bezala batzuk errekonozitu eta zegozkien erakundeak esan nituen. Eta azkenik testu eta zenbaki batzuk idatzi nituen. Sinatzeko eman zizkidaten orriak sinatu nituen eta hor bukatu zen deklarazioa. Uste dut 2:30ak inguru zirela esan zutela. Baina ez dut argi.

Ondoren antifaza jarri, gero itxaroten egon nintzen gela horretan sartu ninduten berriro (gela hori zela iruditu zitzaidan). Ratutxo bat egon ginen eta “Pepe” agertu zen zorionduz: “No ha sido tan difícil, no? Mi jefe me ha dicho que lo has hecho muy bien”. Galdetu zidaten zer nahi nuen orain eta nire erantzuna oso borobila izan zen “que me dejes en paz”, eta alde egin zuten. Ziegara eraman ninduten. Ohean etzan nintzen momentu horretan ur hotz kubo bat gainetik bota balidate bezala, ohartzen hasi nintzen egin nuenaz. Autoinkulpazioaz gain beste izen asko sinatu izanaz torturaren arriskuan jarri nituen. Errepresioaren begi puntuan. Negarrez hasi nintzen. Hortxe indarkeriak sortutako infernua bukatu bazen errudun sentimenduaren infernua hasi zen. Beldurra, nekea, etsipena, eta orain nire buruaren kontrako gorroto eta mesprezua.

### **3. eguna inkomunikatua:**

Egun osoa lasai utzi ninduten. Soilik auzi medikuarengana joateko atera ninduten. Eta beti bezala dena ukatu nuen. Jaten eta edaten hasi nintzen. Eguna pasa ahala, atearen beste aldean entzuten ziren soinuak etengabe beldurraren eremura eramaten baninduten ere, gutxinaka pentsatzeko tartea egiten lortzen joan nintzen. Oso haserre nengoen neure buruarekin. Eta epailearen aurrean izan beharko nuen jarreraz aritu nintzen. Deklarazio poliziala egina zegoen, baina oraindik aukera bat nuen gertatutakoari buelta emateko.

Eta hala pasatu zen eguna. Aurrekoetan bezala komunera joateko eskatzen nuen momentu bakarrenetan ikusten nuen neure gorputza. Ziega iluna bitzen. Zikin nengoen, izerdiz blai. Aurpegia ere ez zen makala.

### **4. eguna inkomunikatua:**

Auzi medikuarengana joateko bi irteeraz gain bisita bat izan nuen eguerdi aldera ziegan eta beste galdeketa bat egin zidaten gauez, auzi medikuari bisitak erreferentzia hartuta. Eguerdi aldera izango zen bisitan ziegan bertan, paretaren kontra bai baina ez zidaten antifaza jarri. Isilik mantendu ziren ni paretaren kontra nengoela. Eta bat batean “Pepe”ren ahotsa hitz egiten hasi zen. “Bueno nosotros hemos cumplido, ya ha pasado todo, nos despedimos” baina ohartarazi zidaten beste erabaki bat hartu behar nuela, epailearen aurreko deklarazioa. Erabaki horrek ere ondorioak izango zituela esan zidaten. Nik nire baldintzapeko askatasunarekin edo espetxe zigorrarekin lotu nituen ohar horiek. Agurtu ziren eta nire esku zegoela esan zidaten. Asko tenkatu nintzen. Beldurra berriz nire gorputzaren jabe egin zen. Trancas agurtu zen gehiagorako gogoekin gelditu zela esanez. Baina deus gehiago esan gabe joan zirenez, berriro lasaitasun minimo bat berreskuratu nuen. Hala ere atetik kanpoko soinuak beti izutzen ninduten eta entzutean beste atxilotuak eraman eta ekartzen zituztela ere arnasa asaldatzen zitzaidan. Eta horrela, afaria eman eta ratu handi bat ondoren nire ziegaren atea soinua egin zuen eta “contra la pared”. Pentsatu nuen, baina hau ez al zen bukatua?

Azken irteera hau ez nuen espero eta berriro aurreko egunetako beldurrak itzuli ziren. Jipoituko nindutenaren sentsazioa sortu zidaten. Dardarka hasi nintzen berriro. Gela batean sartu ninduten eta hitz egiten hasi ziren ahotsak berriak ziren. Bi gizon heldu baziruditen ere Trancas eta Peperen ahotsa baino gazteagoak ziruditen. Horietako bat altua zen, hitz egiten zidanean bere ahotsa etortzen zen norabideagatik. Hasieran oso hitz egiteko forma bortitza erabili zuten. Oraindik informazio batzuk ez nituela argitu. Momentu batean gela horretan Trancas eta Pepe sartzea desiratu nuen. Beraiekin berri hauekin baino seguruago sentituko banintz bezala. Baina ez ziren sartu. Beraien galderei, aurreko galdeketetan egin zizkidaten galdera berdintsu batzuk, lehenago emandako erantzun berdina eman nien, eta haserretu eta oihuka hasi ziren. Bat bereziki, altua ematen zuena. “¡Es que tu solo entiendes los palos o que!”. Momentu batean kolpe handi bat entzun



zen. Mahai baten gainean makila batekin joko balute bezala. Soinuaren ondorioz aulkian saltotxo bat eman nuen eta atzetik irri bat entzun zen. Ondoren gertuko pertsonen inguruan hasi ziren.

Nire aitaren inguruan hasi ziren, bere osasuna zela eta. Susto handirik jasan ezin duela eta nire erruagatik etxera joango balira halako tentsio bat gehiegizkoa izan zitekeela. Ondoren nire adiskiderik onenaren inguruan aritu ziren. Horren feminista izanik ea lesbiana ote zen galdezka. Nirekin haserretu izan ondoren pista galduta ziotela, bere bizitzaz galdetzen zidaten. Ezker abertzalean parte hartzen zuen galdetzen zidaten, eta abar.

Eta azkenik berriz garaituko nindutenaren solasaldiarekin hasi ziren. Zehazki nire bikotea eta nire anaiaren inguruan. Lehenarekin hasi ziren. Bere garaian hiru urte espetxean egon ondoren absolbitua atera izanagatik “se libró, se nos escapó” bezalako esaldiak esaten zizkidaten. “Se nos ha reido a la cara, y lo peor es que en vez de aprender, nada más salir volvió al tema”. Bera ere atxilotzeko gogoak zituztela. Eta aurreko aldiko atxiloketan bizi izan zuena ez zela deus izango beraiekin biziko zezakeenarekin alderatuta. Beraiek ez direla Polizia Nazionale bezalakoak. Guardia Zibilak ez duela huts egiten. “Gainera badakizu emakumeekin dugun trataera berezia dela” eta halakoak botatzen hasi ziren. Bere gorputzaren ezaugarriengatik neurri bereziak erabiliko zituztela. Biluztu, ukitu, bortxatu,... Oso gogorra egin zitzaidan. Minduta nengoen eta beldurrez erabat blokeatuta.

Ondoren nire anaiarekin jarraitu zuten. Eta nire bikotearekin bezala bere atxiloketa aukerak eta gogoak adierazi zizkidaten. Baita ere beraien eskuetan egonik zer egingo zioten. Bere sexu orientazioagatik tratu berezia emango ziotela ziurtatu zidaten. Esaldi batekin gogoratzen dut gelditzen zitzaidan erresistentzia apurra desagertu zitzaidan: “Aquí tenemos palos tan gordos que luego no va a poder sentir ni la polla de su novio”. Bere bikotearen inguruan ere aritu ziren. Gutxi ezagutzen zutela argi gelditu bazen ere nire anaiaren inguruan zituzten gogoak adierazteko baliagarria izan zen.

Sinetsi nien. Sinistu nuen guzti hori egiteko gai izateaz gain gogoak zituztela. “Sabes que la vuestra no es la última vez que va a pasar. Por aquí van a pasar muchos más”. Ez dut zehazki esaldia nola izan zen baina bere esanahia hori zen. Hurrengo egunean epailearen aurrean deklaratzeko ez banuen zin egiten zidaten hurrengo sarekadan anaia eta bikotea eramango zutela. Eta zin egiten zidaten deklaratzeko ez banuen beraiekin erabiliko zuten indarkeria eta bortizkeria informazioa lortzeko beharrezkoa dena baino gehiago izango zela. Mendekuaren “plus”a gehituko ziotela. Aldiz, deklaratzeko ez banuen oraingo ez zituztela atxilotuko. Orduan, eta esandakoa egingo zutenaren sinismenean, erabat apurtu nintzen. Oraingoan ez ninduten ukitu ere egin. Baina hautsita nengoen. Eta ziegara eraman ninduten.

## **5. eguna inkomunikatua:**

Hurrengo egunean deklaratzera igo nindutenean, Auzitegi Nazionalaren ziegatik epailearengana, erabakitzeko tesituran nengoen. Eta zalantzak izan nituen. Dena ukatzekotan egon nintzen eta jasandako tratu txarrak salatzen. Baina barrenean nuen beldurra eta nire anaia eta bikoteari egin ziezaioketenaren irudikatzen hutsaren aurrean ez nuen behar haina adorerik lortu. Irabazi ninduten. Menperatu. Beraien mekanismoaren engranagea bilakatu nintzen. Tratu egokia jasan nuela onartu eta deklarazio polizialean “ratifikatu” nintzen.

\*\* Bost egun hauetan bizi dudana esperimentatu ditudan sentimendurik bortitzenak eta sakonenak izan dira, muturrekoenak. Itota hiltzeko sentsazioa, deskribatu ezin dudana beldurra (panikoa), inpotentzia, eta okerrena dena negatiboa, nazka, gorrotoa, mesprezua eta etsipena. Orain, egun batzuk eta gero, errudun sentitzen jarraitzen dut. Eta gauza askotarako betirako galdu dut nigan konfidantza.